ZTBP | 2030
PCTI

# Energia Garbiagoak Pilotaje Taldea

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## Lan eremuaren estrategia

Energiaren sektoreko enpresen lehiakortasuna merkatu globaletan sustatzea da **Energibasque garapen teknologiko eta industrialeko estrategiaren** xedea, berrikuntzaren bidez, karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioan aurrera egiteko, Euskadi Europan erreferentziazko lurraldea izan dadin ekimen industrialen eta teknologikoen garapenean, trantsizio energetikoaren aukerek aberastasuna, enplegua eta bizi-kalitatea sortzen lagun dezaten.

Energia Estrategia duela gutxi eguneratu da, 2019an eta 2020an berrikuspen prozesu bat egin ondoren.

Estrategiaren dokumentu osoa:

Energibasque Estrategia

# Energibasque-eko eremu estrategikoa

*Xedea*

Energia sektoreko enpresen lehiakortasuna sustatzea merkatu globaletan, berrikuntza teknologikoaren bidez, Euskadiko espezializazio adimenduneko politiketan oinarrituz eta zientzia eta teknologiako euskal sareko eragileen laguntzarekin.

*Ikusmena*

Euskadi erreferentziazko lurraldea izan dadin lortzea Europan, lehenetsitako energia eremuetan ekimen industrialak eta teknologikoak garatzeko, aberastasuna, enplegua eta bizi-kalitatea sortzen modu erabakigarrian lagundu dezaten

## HELBURU OROKORRAK

**HO1:**Merkatu globaletan liderrak diren enpresak erakartzea eta inplikatzea, balio-kateetan trakzio efektua izan dezaten, erronka teknologikoak eta ekimen estrategikoak planteatuz, enpresa hornitzaileen posizionamendu lehiakorra hobetzeko.

**HO2:** Enpresa eta teknologia jarduerak bultzatzea, energia merkatuetan negozio aukera berriak aprobetxatzeko helburuarekin, industria-sarearen lehiakortasun abantailetan eta eragile zientifiko-teknologikoen espezializazio arloetan oinarrituta.

**HO3:** Lehentasuna duten energia arlo eta erronketan balio erantsiko irtenbideak garatzeko funtsezkoak diren zeharkako teknologien aplikazioa eta integrazioa bultzatzea.

# Zortzi arlo estrategiko (balio-kateak) eta bost teknologia bideratzaile lehentasunezkotzat jotzen ditu Energibasque Estrategiak



# Energia Pilotaje Taldearen Kideak

| | |
|---|---|
| **KOPRESIDENTETZA** | EUSKO JAURLARITZA – EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA / GOBIERNO VASCO – DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE; Cluster Energía – BASQUE ENERGY CLUSTER |
| **Enpresak** | IBERDROLA; IDOM; Petronor; SENER; SIEMENS Gamesa RENEWABLE ENERGY; saitec engineering; SOLAR PACK |
| **Gobernu eta Agentzia Publikoak** | ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA – ENTE VASCO DE LA ENERGÍA; GRUPO spri TALDEA; EUSKO JAURLARITZA – EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA / GOBIERNO VASCO – DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE |
| **Agente zientifiko teknologikoak** | tecnalia Inspiring Business; CIC energiGUNE |
| **Idazkaritza Teknikoa** | GRUPO spri TALDEA |

# Lantaldeak eta Foroak

| FORMATUA | GAIA | KOORDINATZAILEA | PARTEHARTZAILEAK |
|---|---|---|---|
| Lantaldea | Haize-energia flotatzailearen sektorearen garapena | SAITEC | 30 entitate<br>(22 enpresa + ZTBESko 8) |
| Lantaldea | Aerosorgailuen datuak partekatzea | XABET | 20 entitate<br>(13 enpresa + ZTBESko 7) |
| Lantaldea | Sare teknologiak,<br>Global Smart Grids Innovation Hub-aren eremuan (GSGI Hub) | i-DE (Iberdrola Distribución Eléctrica) | 16 entitate<br>(14 enpresa + ZTBESko 2) |
| Foro sektoriala | Hidrogenoa | PETRONOR | 7 cluster erakundeetako 104 entitate<br>(94 enpresa + ZTBESko 10) |
| Foro sektoriala | Olatuen Energia | IDOM | 28 entitate<br>(25 enpresa + ZTBESko 3). |
| Lantaldea | Energiaren sektoreko I+G nazioartekotzea | Energiaren Cluster Erakundea | |

# Energibasquen identifikatutako ekimen estrategikoak

- Bidelek 4.0ren garapena
- Mikrorred frogatzaile pilotua Bidelek 4.0n
- "Global Smart Grids Innovation Hub"
- Sare elektriko digitalen nodo bat sortzea Basque Innovation Hub-en (BDIH)
- Windbox nazioarteko erreferentziazko zentro gisa sendotzea
- Haize-energia flotatzailearen sektorea garatzea Euskadin, eskala errealeko erakusle bat eginez.
- Eskala errealean sentsorizatutako aerosorgailua garatzea, datuak biltzeko eta ustiatzeko jarduerak egin ahal izateko
- Sorkuntza fotovoltaikoa eta biltegiratzea dituen mikrosare baterako erakustaldi proiektua
- Planta flotatzailea erakusteko proiektua
- BIMEPen euskal enpresek garatutako 1:1 eskalako kaptadoreen prototipoen garapen, saiakuntza eta balidazio komertziala bultzatzea
- Lankidetza Energy Intelligence Center-ekin (EIC)
- Offshore eremurako produktuak baliozkotzeko azpiegitura (HARSH-LAB)
- Industrialdeetan eraginkortasuna hobetzeko proiektu frogatzailea, energia berriztagarriak eta biltegiratzea integratuz
- Kontsumitzaileari eta prosumitzaileari laguntzeko energia-biltegiratzea hiri eremuan integratzea
- Azkar kargatzeko puntuak berriztagarriekin integratzeko eta sare elektrikoetan biltegiratzeko proiektu pilotuak edo frogatzaileak
- Elektromugikortasuneko erreferentziazko zentroa den Mubil ekimena garatzen laguntzea
- $H_2$ Hidrogenoaren Euskal Korridorea

# Energibasquen identifikatutako ekimen estrategikoak

### Windbox nazioarteko erreferentziazko zentro gisa sendotzea




### Hidrogenoaren Euskal Korridorea



### Sare Elektriko Digitalen nodo bat sortzea BDIH-en




### Euskadin haize-sektore flotatzailea garatzea, eskala errealeko erakusle bat eginez



### Euskal enpresek BIMEP-en garatutako 1:1 eskalako prototipoen garapen, saiakuntza eta balidazio komertziala bultzatzea,



### Offshore eremurako produktuak baliozkotzeko azpiegitura (HARSH-LAB)




### “Global Smart Grids Innovation Hub”



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZTBP | 2030
PCTI

*Talentua garatuz, auzolana*